Gipuzkoako Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Hacienda y Finanzas

31 - 32 / 0000002

NNNNNNNNN NNNNNNNNNN NNNNN
CCCCCCCCCCC 000 00
20000 MMMMMMMMMMMMMMMMMMMMM
GIPUZKOA

Zergadun hori:

Idatzi honen bidez jakinarazi nahi dizugu iaz egin genizun errentako autolikidazio proposamena **aurten EZIN izan dugula prestatu.**

Ahalik eta proposamen gehien prestatzea izan ohi da errenta kanpainetan gure erronketako bat, aurkezpenaren tramiteak errazteko beti. Horrela, lortu dugu urtero 200.000tik gora proposamen bidaltzea.

Zure egoera tributarioa iazkoaren aldean aldatu delako ez dizugu autolikidazio proposamenik egin; gainera, une hauetan ez dugu eskura behar den informazioa proposamena **zehaztasun osoz** prestatzeko.

Hortaz, 2017ko errenta aitorpena aurkezteko obligazioa baldin baduzu, beste modalitateetako edozein erabili beharko duzu: **mekanizatua** -baldin eta lortutako errentaren batek aukera hori eragozten ez badizu-, edo **internet**. Gogoan izan aitorpena aurkezteko epea datorren **apirilaren 23an hasiko dela,** eta apirilaren 20tik aurrera errenta mekanizaturako hitzordua eskatu dezakezula **902 100 040** telefonora deituz edo **www.gipuzkoa.eus/ogasuna/errenta** helbidean sartuta.

Adeitasunez,

Jabier Larrañaga Garmendia
Ogasuneko eta Finantzetako diputatua

D02000N